

Bilborock
Hamar urte botxoko
eszena astintzen

▣ *Ezpalak*
▣ *Argitalpenak*

▣ *Denbora-pasak*
▣ *Makina bat kontu*

Ihesi
Euskadiko
BTT zentroa

ARGIA

erdiko kaiera

kultura eta aisia

Jose Mari Esparza

Espainol ez izateko arrazoiez

Hondartza eta opor garaia, maleta eta aireportuena. Eta aireportuetan, duty free, autolaguntza liburuak. *Zure autoestimua indartu hamar urratsetan, Erretzeari uzteko hogeita bost pauso miragarriak...* Ez duzu Jose Mari Esparzaren (Tafalla 1951) *Cien razones por las que dejé de ser español* horien artean aurkituko, tituluak tankera horretako liburu bat iradokitzen badu ere. Gehiago baita askoz. Saiakera politikoa, historia liburua, anekdotarioa... "Agian hau nire bizitzaren sintesi politikoa da" azaldu du. Liburuaren arrakastari erreparatuta bizitza horrek interesgarria behar du irakurlearentzat. Urte erdi joan da argitaratu zenetik, eta bosgarren ediziora iritsi da honezkerok.

GORKA BEREZIARTUA

Argazkiak: Josu Santesteban





«Independentzia aldarrikatu aniztasuna bermatzen a

Has gaitzen liburuaren titulutik. Probokazioa bilatu al duzu? Komertziala ere badela esan dezake baten batek...

Probokazioa, umorea eta ironia bezala, irakurlearen interesa pizteko erabiltzen da. Nafarroan piperminik gabe ez dago “kaldereterik”. Pertsonalki, gorroto ditut aspertu egiten duten pertsonak eta liburuak. Komertziala dela? Agian! Baina nik mezua oso garbi utzi nahi nuen lehenbiziko lerrotik. Jadanik ez dut sasoirik gai horrekin erdipurdika ibiltzeko.

Titulutik ondoriozta daiteke Jose Mari Esparza noizbait espainola izan zela.

Bistan da. Euskal herritar anitz bezala, gu espainolak egin gintuzten. Ez genekien gure abizenak euskaldunak zirenik ere. Eta gaur egun, kontzientziarik gabe ez dago naziorik. Gure espainolismoa oso ahula zen, egia da. Hala ere, bide luze bat jorratu behar izan dugu zama zaharra kentzeko eta kontzientzia berriari atxikitzeko. Kontraesanak kontraesan, nire amaxok urteak daramatza independentisteki bozka ematen; behin Tafallan ikusi zuen Arnaldo Otegi eta bi musu eman ez zion:

“Ven aquí *resalau* que eres lo más bonito de España” (Hator hona *xalau* halakoa, Espainiako politena haiz-eta).

Historia, bizipen pertsonalak, ahozko tradizioa... Eta liburua ez da 400 orrialdera ailegatzen. Sintesi lan handia eskatuko zizun.

Adin batean asko entzun, bizi, kantatu eta irakurri dugu, eta idazten duguna autobiografikoa izan ohi da. Agian hau nire bizitzaren sintesi politikoa da. Baina ez da nirea bakarrik: jende anitzek izan ditu bizipen eta sentipen berberak eta horrek azalduko luke liburuak izan duen arrakasta.

Zure familiaren historian ere murgildu zara, 200 bat urte egin duzu atzera. Tradizio politiko handia duzu etxean ikusten denez.

Tradizio politikoa? Ez pentsa. Euskal Herriko familia guztiena. XIX. mendean karlistekin tiroka, denok bezala. Gero Ameriketara, kintetatik eta goseteetatik ihes egiten. Ez zen tradizio politikoa handirik behar Kubako edo Afrikako gerrara joan nahi ez izateko. Lur komunalak berreskuratzeko iskanbiletan ere



Intelektual atzerritarrak eta "indio onak"

"Anitzetan 'indio onaren' sindromea ere badago: ze polita den desagertze dagoen herri zahar bat, bere antzinako ohiturak, bere tam-tam edo txalapartarekin, lumak edo txapelak buruan... Maitagarriak dira herri txikiak, gaixoak... eta galtzaileak. Baina indioak gerrako aizkora ateratzen duelarik eta munduan bere lekua exijitzen duelarik, 'indio gaiztoa' bilakatzen da. Orduan ez du interesik sasi intelektual horientzat. Beste batzuentzat bai, ordea".

z munduko ri gara»

ibili ziren, jernalari guztiak bezala. Herria hemen eta jauntxoak hor, ez zegoen beste tradizioz. Gero II. Errepublika eta botereak eginiko euskal pobreen banaketa: batzuk *rojoseparatistak*, besteak erreketek. Frankismoarekin, berriro beharra. Tartean kontrabandoa eta estraperloa... Zergatik euskal familia arrunt guztiak ibili dira beti espainiar legearen bestaldean? Zergatik 200 urtetan ez gara eroso senti-

tu Estatu honen baitan? Gurasoek ez gintuzten engainatu, Juaristik dioen moduan. Guk begiak ireki ditugu, hori da kontua.

Karlismotik anarkismoraino, abertzaletasunaren ikuspegi zabala ematea izan duzu helburu?

Euskal karlismoa eta euskal anarkismoa saiatu ziren "beste" Espainiaren barnean eroso sentitzen. Berdin euskal liberal foralistak, masoiak, errepublikanoak, komunistak... Ez ziren abertzaleak, baina lau probintzietarako estatus berezi bat eskatu zuten. Hor dugu esaterako, 1936an Nafarroako Fronte Popularrak Estatuaren alde egin deialdia. Baina saiakera mota guztiak porrot egin zuten, "betiko" Espainiaren kontra, baita larrutik ongi pagatu ere, "beste" Espainiarik ez baitago. Gure abertzaletasuna porrot horien guztien ondorioa da. Geratu zaigun bide bakarra.

Arrazoiak sentimetaletatik praktikoagoetara doaz –administrazioa, ekonomia...–. Lehenengoek bigarrenengoek baino pisu handiagoa dutela koan nago.

Abertzaleok sentimendu handiko jendea gara. Askatasun-gogoia sentimendu handia da, eta are handiagoa askatasuna kentzen digutenei gorrotoa. Guk musu truk izanda ere aldarrikatuko genuke independentzia. Alta, kontuak ere atera behar ditugu –katalanek egiten duten moduan–, abertzaleak ez direnak hemen ze ondo biziko garen jakin dezaten. Arlo sozialean, ekonomikoan, giza eskubide mailan, osasun arloan, hezkuntzan... Euskal Herriak sekulako aukerak ditu libre izanik. Egun batean gaur espainolista diren sektore asko, kalkulagailua erabiliz gero, gu baino independentistagoak bilakatuko dira. Denbora testigu. Baina, lehenik eta behin, idealistek zabaldu behar dute bidea.

Espainolotasunaren ukazio ariketa da liburua. Baina, ukazio horretan bat egin arren, sarritan pertsona berak ez dira ados jartzen beste zer-

Euskal museoa Bilbao

GERNIKA
hazia, mundu osorako argia

Antolatzaileak: Euskal Museoa, Bilbao, Museo Vasco
Musée Basque et de l'histoire de Bayonne

Oraindik eta berriz: Equipo T. Restauración SA

Erakustetako argiztapenak: 2007ko azararen 12an

Erakustetako argiztapenak: 2007/07/13 - 2007/08/31

Plaza Unamuno, 4

Photo © Succession Picasso 2007. Musée d'Untermythen, F8800 COLMAR F/D Zierovraam

baiten alde egiteko, independentzia kasu.

Espainolismoak kalte handia egin digu, eskuinekoak fisikoki eta ezkerrekoak ideologikoki. Francoren "Principios Fundamentales"-ek eta *El País*en estilo liburuak helburu berdina dute Euskal Herriarekiko: gu uztarriari loturik mantentzea. Hori salatu behar da Espainiarekiko azken zubi faltsuak apurtzen. Zailagoa da gero etxean adostea independentziaren epeak edo ailegatzeko bideak. Baina hori beti gertatu da: Espainiaren aldeko manifestaziorik handienak Kubako independentziaren bezperan egin ziren La Habanan. Eta han ziren "autonomistak" eta "amejoramiento"-a (sic) eskatzen zutenak... Gero, biharamunean, ez da inor horretaz gogoratzen. Gure gaurko desadostasunak askapenerako gidoi klasikoaren barnean daude.

Lo mejor para ellos kapituluan diozunez, Espainiako herritarrak izango dira independentziarekin onura gehien lortuko dutenak. Ez dakit beraiek hori oso garbi ikusten duten.

Faxistek esaten zuten "Espainia imperioa da edo ez da deus", eta zutabe ideologiko horrekin eraiki zen Espainia Gaztelako zabaltzea hasi zenetik. Lehen lehenik bere populua miseria gorrian utzi zuten, noski. "*Castilla miserable / ayer dominadora, envuelta en tus andrajos / desprecias cuanto ignoras*" (Gaztela miserablea / atzo nagusia, zure zarpailetan bildua / ezezaguna erdeinatzen duzu). Machadok ezin izan zuen garbiago esan. Espainiak beti behar izan du etsai bat aurrean bere nortasuna eraikitzeko: moroak, indigenak, juduak, moriskoak, anarkistak, masoiak, *rojoseparatistak* eta orain euskal abertzaleak. Egun, Extremadurako edozein gizabanakok esango dizu bere problema handiena euskal separatismoa dela eta ez Albako Dukeren latifundioa. Espainiako populua preso dago, Espainia kartzeleroa delako. "Espainiaren batasuna" da faxista guztien leloa, betiko monarkia, eliza, ejertzito eta aristokraziaren euskarria. Horregatik ere apurto behar da Espainia hori, espainol populuari laguntzeko.

Nuestro derecho kapituluan euskaldunen idiosinkrasiaren zan-

Editorea territorio komantxean

Txalapartako editorea zara. Mundu osoko ezkerreko pentsalarien liburuak argitaratzen dituzue. Lan handia eskatzen al du horien argitalpen eskubideak lortzeak?

Gure herriaren zerbitzura dagoen argitaletxea gara, baina urteetan mundu osoko argitaletxeekin aliantzak sortzeko ardua izan dugu. Hortik dator Mexikoko ERArekin, Txileko LOMekin eta Uruguayko TRILCErekin egindako elkarteak. Oraintxe Parisen hirurogeitik gora argitaletxerekin Mundializazio berri baten aldeko Editore Independenteen Aliantzaren bilera berria antolatzen ari gara. Edizio munduan ere "batasunak indarra dakar" leloak balio du. Batasun horrek Euskal Herri-rik ezinezkoa litzagukeen hainbat idazle eta liburu garrantzitsurengana heltzea ahalbidetzen digu eta, bide batez, gure errealitatea ezagutzeko baliagarria da. Ez dugu ezagutzen beste erarik globalizazioari eta monopolioei aurre egiteko.

Euskaraz eta gaztelez ari zarete. Zein da Txalapartaren irizpidea hizkuntza bakoitzean argitaratzeko?

Gurea mugako argitaletxea da, eta ez bakarrik Nafar Erriberako atean gaudelako fisikoki. Muga linguistikoa ere ibiltzen gara. Bi-hiru hizkuntzatan argitaratzen dugu eta erdal irakurle-geoa euskarara erakartzen saiatzen garen bezala, "territorio komantxean" ere sartzen ditugu gure liburuak, Euskal Herriarekiko egoerari buruz jakinmina sorrarazteko. Eta esperimantu gisa, hor dugu euskal idazleekin egin nahi duguna: hemen euskaraz argitaratu eta Argentinan erdaraz.

tzuak bizitzaren alor txikienetan ere aurkitzen direla diozu. Nola eusten zaio horri bizi dugun globalizazio honetan?

Globalizazioaren aurrean idiosinkrasia goi mailako balorea bilakatzeko ari da. Unescok lehenik eta gero ONUk kultur aniztasuna bermatzeko hartutako akordioak dira horren froga. Mundua oso kezkatu-rik dago datorren basamortu ekologiko eta kulturalarekin eta hor dugu herri txikiok eztabaidan koilara sartzeko aukera. Ulises Moulines katalan filosofoak esan berri du nazionalismoa dela herriei dagokien ekologismoa, herriak eta hizkuntzak salbatu behar direlako, Amazonia edo baleak salbatu behar diren bezala. Horregatik nazionalismoa balore positibo eta humanista da, internazionalista, ekologismoa bezala bizitzeko guztion eskubideak defenditzen dituelako. Hau ez da nahastu behar hegemonismoarekin –Espainiako kasu– besteon bizitzeko eskubidea ukatzen duelako. Herri txiki guztien independentzia edo "dependentzia eza" aldarrikatuz, gure hizkuntzaren eskubideak aldarrikatuz, munduko aniztasuna bermatzen ari gara eta oso ongi kokatzen dugu euskal afera globalizazio humanistaren eztabaidaren barnean. Inoiz baino gehiago, gure interes lokalak mundu osoko interesekin uztartzen dira. Modan gaude, dudarik ez, arrazoa gure alde dago eta gogoz eta konfiantzaz sartu behar gara eztabaida honetan.

101. arrazoa bukatzeko: seme-alabak. Demagun espainol izateko arrazoiak aurkitzen dituztela. Zer egin?

Ezertxo ere ez. Horrek esan nahi izango luke aurreko senarra, astoa, tratatu txarrak eragiten zituen eta indarrez bere etxean mantentzen gintuena, erabat aldatu dela, erakargarria bilakatu, maitagarria...

Espainiak lortzen badu euskaldun berriak bere baitan eroso sentitzea, bapo! Hala ere, Espainiatik alde egin dute berrogeita hamarretik gora nazio-emaztek, eta bat bera ere ez da damutu. Oso maitale kaxkarra da; hori da bere ezintasuna. Ez du maitasunik sortarazten. Konkistatu gaitu bortizki, militarki, baina ez daki gure bihotza konkistatzen. ■

